

Amaierako lanetan kideen ekarpenak jaso


Zergatik, zer eta nola egin jarduera hau?

Egun, asko dira kolaborazioan egiten diren online dokumentuak. Baina dokumentu horien partekatze aukera guztiak baliatzen ditugu? edo soilik horietako batzuk? Jarduera honen bitartez, partekatze aukera desberdinak landuko ditugu helburu konkretu batekin.

Dokumentu bat partekatzeko hautua hartzen dugunean argi izan behar dugu zeinekin partekatzen dugun eta nola partekatzen dugun. Batzuetan, egokia da dokumentu hori era publikoan partekatzea, besteetan aldiz horrek ez du zentzurik eta segurtasun arazoak ere inplika ditzake. Edozein eduki partekatzea ere ez da bidezkoa. Jarduera honetarako, Google Drive erabiliko dugunez hona hemen aurretik irakurri beharreko eduki interesgarri bat:

- [Baimenen elkartrukatze baldintzak aldatzea \(es\)](#)

Zer da beraz planteatu dezakeguna? Kasu honetan, sortzen ditugun eduki kolaboratiboetatik haratago, erabiltzaile batek edo lantalde batek sortutako dokumentu bat beste talde edo erabiltzaile batekin partekatzeko eskatuko dugu. Partekatze hori baina, ez da izango edizio baimenekin baizik eta **iradokizun/komentatze (luzkin dezake)** baimenekin lan originala babesteko aukera dugularik. Aukera hau baliatuz, hirugarren baten ekarpenak jaso ditzakegu gure lanetan gure lanaren integritatea babestuz.



Irakaslearekin aldiz, irakurtzeko baimenarekin (Ikus dezake) partekatuko dugu amaierako bertsioa izan arte. Orduan, berriz ere iradokizun/komentatze (luzkin dezaket) aukera baliatuz partekatuko diogu feedbacka eman dezan.

Ikaskuntza emaitza

Ezagupen adibideak

- Ulertzen du prozesu kolaboratiboek edukien sorrera sustatzen dutela.
- Ulertzen du edukien sormenari noiz egiten dien mesede prozesu kolaboratzaileek eta noiz ez.
- Ulertzen du lan kolaboratiboaren eta feedback-a eman eta jasotzearen dinamika.
- Ebaluatzen ditu besteek egiten dizkieten lan ekarpenak.
- Ulertzen du on-line kolaborazioaren modu desberdinak rol desberdinak onartzea eskatzen duela.

Trebetasun adibideak

- Gai da software paketeen kolaborazio funtzionalitateak eta webean oinarritutako kolaborazio zerbitzuak erabiltzeko (adibidez, aldaketen kontrola, dokumentu batean iruzkinak, etiketak, wikiekin lan egitea, eta abar).
- Feedback-a jaso eta emateko gai da.
- Besteekin urrunetik lan egiteko gai da.
- Gai da kolaborazio mota desberdinetarako bitarteko sozialak erabiltzeko.

Kontsultarako baliabideak

- [Baimenen elkartrukatzeko baldintzak aldatzea \(es\)](#)

Lantzen diren gaitasun digitalak

Esparrua	Gaitasuna	Maila
2. Komunikazioa	2.4 Kanal digitalen bitartez kolaboratzea	Ertaina Aurreratua

digcomp [euskaraz](#) - [gazteleraz](#)

Erronken 11 pausoak

Erronken 11 pausoekin lotura	5. Proposamenak sortu 11. Ebaluatu
------------------------------	---------------------------------------

[Erronken 11 pausoak](#)

Zenbatetsitako denbora

30-60 minutuko iraupena errebisatu beharreko lanaren luzeraren arabera.

Jarduera honen ebaluazioa

Jardueraren balorazioa egiteko bete ezazu mesedez [galdetegi txiki hau](#).

Jabetza eta erabilpen baldintzak

Lan hau Iñaki Telleriak (Tknika) sortu du eta Creative Commons CC-BY lizentziarekin banatzen da.